

FUNTZEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtziona dezan hainbat jarduera kontuan izan behar dugu:

- **Ekoizpena:** Gure enpresak ez ditu haur-kotxeak fabrikatzen, baizik eta “Funtzezko elkarteak” zatian agertzen diren hornitzaileei eskatzen dizkiegu, eta gero guk gure dendetan saltzen ditugu.
- **Arazoak konpontzea:** Hornitzaileek salgaiak arazoekin bidaliko balizkigute haiekin kontaktuan jarriko ginateke; gure premiak gure produktuen kalitatea eta bezeroen ongizatea baitira. Gure bezeroek arazoren bat izango balute gurekin jarri daitezke kontaktuan WhatsApp edo sare sozialen bidez.
- **Plataformak eta sare sozialak:** Dakigunez, internet da, gaur egun, berri bat helarazteko modurik azkarrena. Horregatik, garrantzi handia emango dizkiegu sare sozialei, batez ere pil-pilean daudenei, Facebook eta Instagram, alegia. Gure informatikan aditua, Gorka, horretaz arduratuko da. Gainera, publizitatea egiteko modu oso eraginkorra eta dohainikoa da.